



KOSTU EGITURA

Proiektua bideragarria den ala ez baloratu ahal izateko, martxan jarri ahal izateko behar izango genukeen hasierako inbertsioa kalkulatu dugu alde batetik, eta nola finantzatuko genukeen zehaztu.

HASIERAKO INBERTSIOA		FINANTZAZIOA	
Kontzeptua	(€)	Iturria	(€)
Kamioneta	20.000	Bazkideon ekarpenak	12.000
60 Bizikleta (300€ bakoitza)	18.000	Ekintzaileei diru-laguntzak	10.000
10 Bizikleta elektriko (2.000€ bakoitza)	20.000	Mailegua / Kreditua	48.900
2 Erremolke-gurdi (350€ bakoitza)	700		
Tailerreko ekipamendua	2.500		
Ekipamendu informatikoa	2.000		
Altzariak	6.000		
60 Bizikletentzako aparkalekua	400		
Lokalaren alokairua	1.500		
GUZTIRA	70.900€	GUZTIRA	70.900€

Ikusten denez, entitate finantzarioengandik 48.900€ beharko genituzke negozioari ekiteko, baina 50.000€ eskatuko genizkieke maniobratzeko aukera izateko edota soberakinik izanez gero abiapuntuko sustapen kanpainetan inbertitzeko. Orohar %6ko interes-tasa ordaindu behar izango bagenu, 53.000€ itzuli behar izango genituzke 5 urteko epean; hau da 883,33€-ko 60 kuota.

Ondorengo taulan ikusgai den bezala, behin negozioa abiatu ondoren, gutxi izango lirateke izango genituzkeen gastu finko zein aldakorak, eta hortaz, erabat bideragarria iruditzen zaigu aipatutako kuotei aurre egitea. Gastu aipagarrienak honakoak lirateke: langileen soldatak, lokalaren alokairua eta bizikleten mantentze kostuak.



HILABETE BATEN BATAZ-BESTEKO AURREKONTUA			
KOSTU FINKOAK	(€)	DIRU-SARRERAK	(€)
Lokalaren alokairua	1.500	Ikasle-taldeekin ibilbide gidatuak	12320
Soldatak	12.000	Udalekuekin ibilbide gidatuak	2940
Bankuaren kuotak	883,33	Turistekin ibilbide gidatuak	9600
KOSTU ALDAKORRAK	PREZIOA	Bestelakoekin ibilbide gidatuak	1600
Argindarra	500€	Turisten ibilbideak (gidarik gabe)	840
Gasoila	200€	Bestelakoekin ibilbideak (gidarik gabe)	2400
Bizikleten piezak	500€	Bizikleten garraioa	600
Triptikoak (folletoak)	Folletoak: 100€ (1000 unitate inguru.)	Oroigarriak	1800
Sare sozialetako publizitatea	300€		
Oroigarriak	600€		
GUZTIRA	15.983.33	GUZTIRA	32.100

Hilabeteen batzuetan beste izango genituzkeen diru sarreraren kalkulua, urtean zehar izango ditugun jardueren ezberdinen batuketara da, 12 hilabeteetan banatuta. Horrela nahiz eta eskoletako taldeak eta udalekukoak urte osoan zehar ez izan, goiko taulan hilabetero dagokien zatia azaltzen da.

Aurreikuspenak egiterakoan, astelehentik ostiralera bi egunetako jardunaldiak aurreikusi ditugu eskoletako. Jardunaldi bakoitzean bi gela edo talde izango ditugu,



batazbeste 50-55 ikasle + irakasleak. Udalekuei dagokionez, 30 laguneko taldeak aurreikusi ditugu, uztaila eta abuztuko 42 egunetarako. Honek, batzaz beste eguneko 3,5 esan nahi du hilero.

Turista gidatuek 4 edo 8 orduko ibilbideak egingo dituzte eta talde ezberdinetan 30 izatea aurreikusten dugu, baina larunbat, igande eta jaiegunetan soilik. Bestelako pertsonak (25 astero) edo gida gabe ibiliko direnak ere kontutan izan ditugu aurreikuspenak egiterako orduan.

Aurreikusitako lagun kopuru hauek, baoitzak aukeratu duen modalitatearen prezioarengatik biderkatuta lortzen den emaitza da taulan ageri dena. Oroigarrien kasuan, normalean arropa edo oroimen dendatan erabiltzen diren marjinak erabili ditugu, hau da, produktuaren kostua (garraioa barne) hiru bider izango da.

